

## JEAN ETXEPAREREN *BERIBILEZ* (1931): BIDAIA ETA IDEOLOGIA

**Tesiaren egilea:** Aitor Ortiz de Pinedo Rojas

**Unibertsitatea:** UPV/EHU & IKER/ Université Bordeaux-Montaigne III

**Saila:** Literatur ikasketak eta literatura konparatua / Études Basques

**Tesi-zuzendaria:** Jon Kortazar eta Jon Casenave

**Tesiaren laburpena:**

Jean Etxepareren (1877-1935) bigarren liburua (*Beribilez*) aztertzen da tesian. Ikerketaren jomuga dira autorearen helduaroko ideologia eta haren Euskal Herriaren iruditeria, bidaia-kontakizun honetan, hegoaldeko Euskal Herrian zehar autoz egina. Metodologia semiotikoa (Philippe Hamon) eta imagologikoa (Daniel-Henri Pageaux) erabili dira. Gure hipotesi nagusia da azken urteetan gaixo zegoen mediku honek hilburuko intelektuala utzi ziela gogaide euskaltzaleei bidaia-kontakizun «barnehandi» honetan.

Jaso dugu kritikak zer esan duen orain arte, eta hura osotzera gatoz. Jean Etxepareren formazio intelektuala aztertu dugu, eta ikusi dugu Ipar Euskal Herrian garai hartan nagusia zen ildo tradizionalarekin talka egiten zuela. Estatuaren eta Elizaren arteko tirabiren garaian Etxeparek bide libre-pentsalaria hautatu zuen, filosofia alemanera emana baitzen.

Pentsamentu estetikoaren esparruan, euskal paisaiaren beraren ikuspegia ekonomizista samarra da, nekazaritza-lurren estimua mistizismo poetiko batekin uztartzen duela. Loiolako Santutegian ikusten duen erlijiotasun barroko luxuzalea kritikatzeko du; ikusten da heziketa eta bereizmen artistikoa duen intelektual burges txiki baten aurrean gaudela. Bestalde, jakitate burges txiki horren osagarri, mediku hau trebea da hainbat plazer txiki gozatzeko: mahaikoa, ardoak, dantzak eta erotismoa. Ohiko aszetismo konfesionaletik aldentzen da neurritasunarekin, gorputzari ezohiko lekua emanez testuan.

Etikaren alorrean, Donostiako hiri-hazkundera kritikatzeko du: goi-burgesiaren materialismo eta endekapenaren kontra, espiritualtasun laikoa aldarrikatzen du. Bigarren Mundu Gerra izango zela profetizatzen du, gizakiak elkarrengana begirunerik gabe ikusten baitzuten. Positibista zen heinean, edozein sineste irrazional ere kritikatzeko du. Azkenik, adierazten du helduarokoan filosofia greko neurritsura lerratu dela, gaztaroko oldarra sosegatu zaiola. Euskal Herriari buruz, mugako bi aldeen arteko elkartzuna bultzatu nahi du historiako pasarteak modu diplomatikoan berrinterpretatuta. Hegoaldearekiko jarrera filia eitekoa da. Ondorio

gisa, esan dezakegu idazleak liburu mamitsua paratu zuela, bere pentsamoldea tentu handiz modalizatuta, ez baitzuen nahi bigarren liburua ere arbuia izatea lehena bezala (*Buruxkak*, 1910).